

## EBK USURBIL – Talde Sustatzailearen 4. bilera

(2022/07/07 – 18:00 – Pottoeneako goiko aretoa)

### Parte hartzaileak

**Goienar:** Alazne, Santi

**Herritarrak/elkarteak:** Pello Aranburu, Julen Begiristain, Oihana Eizaguirre, Ana Ilarramendi, Niko Bengoetxea, Fernando Iturralde

Itziar (berria) → lagun baten ordeztu da (Zaintza prozesuan dabil, eta adierazi du halako prozesuak denbora eskatzen dutela. Apunteak hartu ditu eta pasako dizkio lagunari.)

### Sarrera (18.00 – 18:10)

Nola gaude?

Orain arte egindakoaren laburpena egin da, gai ordena aurkeztearekin batera.

### Fundazioa gutuna (18:10 – 18:30)

Onartzen dugu?

Alaznek gutunaren edukiak laburbiltzen ditu (zergatik eta zertarako EBK Usurbilen). Azken finean gurea egiten dugu proposamena eta gure hitzekin forma ematen diogu helburu orokorreari. Ohar batzuk:

- Herritar egitasmo zabala / subiranotasuna eta jasangarritasuna / Kontzientziazioa dinamika: murriztu, berrerabili, partekatu
- Beharren arabera baliabide eta proiektu propioak
- Komunitate bizi eta aktiboa, modu integratuz jardun dezala
- Herri mailako sarete eta kontzientziazioa; erantzukizun eta erabakitze kolektiboa, talde eraginkor eta konfiantzazko bat antolatu.
- Bizi baldintzak hobetzeko, arrakala sozial eta ekonomiko oro gainditu
- Berrinbertitu, proiektu eta zerbitzu gehiago bultzatzeko, lanpostuak sortu.
- Inguruko eragileekin jardun, balio eta xede sozialak partekatzen dituztenekin.

Ideiak eta inpresioak partekatzeko erronda bat egiten da.

Balio-printzipioekin bat gatoz, nahiz eta gero lurreratzea kostatzen zaigun (une honetan behintzat.)

Zerumuga identifikatzen ari gara, baina nola heldu jakiteko denbora behar da.

Garrantzitsua da lantalde bakoitzean minimo bat egotea, eztabaidak eta proposamenak lantzen hasteko.

Baina ezin bada, lana talde handian egitera bideratu daiteke dinamizazioa. Denbora gehiago eskatzen duen arren, gaia lurreratzeko modua litzateke.

Dokumentua zabaldu nahi dugu?

Aste klima (irailak 23 - urriak 2). Hitzaldiak antolatu daitezke, baina eskaera epea gainean da eta agian beste bide batetik egin daitezke.

Honen inguruan ez da ezer adostu momentuz.

### Prozesuaren errepasoa eta lan taldeen egoera (18:30 - 18:45)

Hiru lantalde nagusien birgogoratzea:

- **Proiektuak:** Komunitateak egin litzakeen proiektuen aukera ezberdinak aztertu eta zein egingo diren zehaztu...
- **Komunikazioa eta komunitatea:** Energia komunitatearen izena eta logoa, nola sozializatu kanpora begira, partaide berrien harrerak egin, webgunea, korreoaren kudeaketa...
- **Juridiko-administratiboa:** Komunitatearen bideragarritasuna aztertu (autokontsumoaren irabaziak nola kudeatu, adibidez), kooperatibaren estatutuak landu (komunitateko partaideen boterea, erantzukizunak etab.)
- Komunikazioa eta komunitatea: Logo eta izen proposamenak egon dira
- Juridiko - administratiboa: 1 - Niko Bengoetxea
- Proiektuak: 2 - Julen Begiristain, Jon Vizoso

Lantalderen baterako aproposa den edota lantalderen batean interesa izan dezakeen pertsonak identifikatu, eta parte hartzeko gonbidapena egin.



## IZAERA JURIDIKOAREN INGURUKO AZALPENAK (18:45 – 19:30)

SANTIK HARTU DU HITZA

RD-aren definiziora jotzen da, izaera juridikoaren beharra azpimarratzeko.

Espainiar estatuko markoan, Europar zuzentarauen betekizunak, Elkarateek eta Irabazi asmorik gabeko kooperatibak betetzen dituztela ikusi da. Hauek dira momentuz araututako izaera juridikoen artean identifikatu direnak. Hala ere, oraindik ez da EBK arautzeko legearen egokitzapena egin estatu mailan.

Honi dagokionez, bitartean kooperatibaren aldeko apustua egiten ari da inguruan batez ere. Eta horretarako ulertu behar dugu, zer suposatzen duen kooperatiba bat sortzeak.

- 1) Izena → izenik ez duena ez da existitzen. Nola deituko dugu Usurbilgo EBK?
- 2) Helburu soziala, xedea jarduerak → zeru muga jarri dugu fundazio gutunean, baina estatutuak baliatu daitezke zehaztasun hauek biltzeko.
- 3) Kooperatiba motak: Integrala, mistoa...
- 4) Parte-hartze motak: botere banaketa, organoak
- 5) Eskubide eta betebeharrak: ekarpenak, kuotak

Estatutuetan jasotako xedek, askotarikoak eta zabalak izan daitezke. Aurrera begira egin nahi genituzkeen gauzak identifikatu beharko genituzke. Nahiz eta hasiera batean guztiari ez ekin, gerora gauzatu nahi genituzkeen proiektu eta ekintzak, jada estatuetan daudela bermatu behar genituzke.

- **KOOPERATIBA MOTAK.**


**SAILKAPEN**Aren arabera

**KOOP INTEGRALA:** kontsumo kooperatiba + zerbitzu enpresarialen kooperatiba

Biak uztartzen ez badira, ez da integrala. Bat edo bestea baizik.

**ERABILTZAIL**Een arabera

**KOOP MISTOA:**



1) ERABILTZAILEAK, LANGILEAK, ZERBITZU-EMAILEAK, LAGUNTZAILEAK, ESZEDENTZIADUNAK

+

2) INBERTSOREAK: Boto eskubidea duten inbertitzaileak (laguntza finantzarioa ematen dute, eta trukean interes bat ematen zaie) → proiektuekin lotura ahulagoa izango duten figurak barneratzeko

Ez da lan elkartuko kooperatiba.

Erabiltzaileak izango dira kopuru handiena, beraz, hauek izango dute pisu gehiena.

**GALDERA:**

koop bat eraldatu daiteke, mistotik lan elkartura? Kontsumitzaileek pisua galtzen joan, eta izan den arrakastagatik, langileek pisua gehiago hartzean posible izan daiteke → baina parte-hartze motak arautuko du hau guztia

**PARTE HARTZE MOTAK:**


Kontsumo kooperatiba: erabakimen handiena, kontsumitzaileengan bideratu behar litzateke.

Parte hartzaileen errepresentazioa → batzar orokorrari begira. Zeinen esku egongo dira erabakiak?

**Adib:**

**Egitura juridikoa: Irabazi asmorik gabeko kooperatiba integral eta mistoa**

“Kooperatiba hainbat pertsonaren elkarketa autonomoa da, zeinak beren borondatez elkartu diren beren behar eta nahi ekonomikoak eta sozialak elkarrekin asetzeko, jabetza bateratua eta kudeaketa demokratikoa duen enpresa baten bitartez”.



Parte hartzea ez dago lotua kapitalera. Inbertitzaileak, kapital handia izanagatik, ez dute botere gehiago izango. %10 esleitzen bazaie, hori mantenduko litzateke beti. Hori baita kooperatibaren funtsa. Bestela, Sozietate anonimo bat egiteko aukera legoke adibidez.

Definitu egin behar da eta adostu estatutuetarako.

**GALDERA :** gaiarekiko jakintza faltak atzera bota lezake. Lan-taldeetan parte hartzeari begira zalantza eta beldurrak nabaritzen dira.

Honi erantzunez, ez da inolaz teknikoa izan behar gai zehatz batean, parte hartzaile ezberdinek diote, ikasteko helburuarekin batu nahi dutela batera edo bestera. Formakuntza eta erabakiak hartzeko tresnak jasotzeko helburuarekin.

Adib:

## 4.- PARTEHARTZE MOTAK.

	KONTSEILU ERREKTOREA					TOTAL	BATZAR OROKORRA
	FISIKOAK	PYME	ERAKUNDE PUBLIKOA	BIZILAGUN ELKARTEA	ELKARTEAK		
KONTSUMITZAILEA						(6-8)	60%
LANGILEA						(1-2)	10%
ZERBITZU EMAILEA						(1-2)	10%
KOLABORATZAILEA						(1-2)	10%
"INBERTSOREAK"						1	10%
<b>GUZTIRA</b>						<b>(10-15)</b>	100%

**Batzar Orokorra:** Erabakigune inportanteena. **%koak,**

**Kontseilua:** Eguneroko erabiki gunea (operatiboak)

Kontseilu errektorean (KE) lan-talde eta komisioen ordezkartza. Ordezkaritza honek, zentzua izan beharko luke batzarreko banaketarekin.



## ZALANTZAK

### Beste izaera juridikoekin zer?

Fundazioak: hauen bidez ezin da parte hartze irekia bermatu. Kooperatiba batean hasiera batean, ezin zaizu ezetz esan. Kontsumo kooperatiba batek, ezin du diskriminatu, beti ere estatutuetan jasotakoak betetzen bada.

Autonomoak: parte hartzen dutenek, boterea eduki behar dute. Hau bermatzen duten bakarrak, ELKARTEAK eta KOOPERATIBAK dira.

Estatutuak → barne araudia. Kooperatibek, izaeragatik, gauza asko zehaztuta dituzte. Beraz, badituzte jada egituratutako tresnak, halako proiektu konplexuak garatzeko.

Elkarteetan, lanketa handia egin behar da, hori guztiori arautzeko. Prozesuren batzuetan ikusten ari da elkarte gisan abiatu ostean, kooperatiba bilakatzeko pausua eman dutela. (Gares adibidez). Proiektuen konplexutasuna dela eta, izaera konplexuago batengana jotzeko beharra ikusi dute.

Asko baldintzatuko du, egin nahi ditugun jarduerak eta norekin egin nahi dugun zehazteak (udalak, erakundeak...) → nola uztartu elkar lana?

Kapitalaren kasuan: Kooperatiba batean adibidez, 10€ jarri kuota moduan. Proiektuari lotuta 300€. Kooperatiban daude, baina itzultzeko eskatu ditzakezu.

Elkarte batean, ez da horrela. Diru hori ez dago inori lotuta.

Proiektu egingarriak identifikatzea garrantzitsua da gau gauzatzeko. Baina aurrera egiteko arazoak badaude, eraketari ekin diezaiokegu. Izaera juridikoa erabaki eta zehaztasunak elikatu.

( Urriak 31a, GFAko diru laguntza)

## **ONDORIOAK ETA ERABAKIAK (19:30-20.00)**

NOAUAn Fundazioa gutuna zabaldu eta lan taldeetara batzeko deia egin?

ADOSTASUNA → iraila hasieran. Honekin batera, iraileko bilerara gonbidatu.

Ana: ez du garbi zein lan-taldeetan egon. Orokorrean ekiteko gogoz.

Oihana: proiektuetan ikusten da, baina zabalik dago besteetan parte hartzeko ere.

Herrira zabaltzeko, herri mailako eragileak baliatu ditzakegu? Herriko artixtak?

## HURRENGO SAIOA

Hurrengo bilera → IRAILAK 13, asteartea , 18:00etan

**aurretik adostu (1. Deialdian izena eman zuten pertsonekin)**

(Bileraren amaiera: 20:00)

